

Baionan, mila bederatzireun eta berrogeitamargarren urteko Uztailaren ama-bostean "Musée Basque"-ko Batzar-gelan oste andia dala, Etxaide yauna maipuru ta Elissalde, Krutwig, Lafitte, Saint Pierre, Dassance, Lafon ta Oleaga euskaltzainak batzen dira, Dassance ta Lafon euskaltzain barrien sarrera ospatzeko.

Araudiaren agindua beteaz, Oleaga Zadorlariak azaltzen dau laburto batzarraren gaia.

Dassance jaunak irakurten dau bere sarrera-itzaldia. Gaia "Eskualzaleen Biltzarra"-ren edestia da; eta Biltzar orren irazpena, txedea ta yarduna oso ederto argiratzen dauz. Biziro txalotua izan da.

Elissalde jaunak, Dassanceren goralben egokiak egiten dauz, euskeraren alde zein sutsu ta bizkor beti ekin dauan azaldurik. Oso atseginez entzun da Elissalderen lan txukuna.

Urrengo Lafon jaunak dirakur bere sarrera-itzaldia. Euskerea Izkuntza-yakintzean zein garantzi aundia daukan, argi ta sakon adierazoten dau bertan.

Krutwig jaunak, Lafoneri ondo-etorria emonaz ganera, izkuntza-iraupenaren garrantzi andia, eta iraupen orreri gizaki gurenak izkuntza ori erabiltea zein onura aundiko yakon, agertzen dau.

Txalo bizi ta luzeak egin yakez iztun guztieri.

Zadorlariak adierazoten dauz Lekuona, Gertari, Altube ta beste batzuen agur-agiriak.

Etxaide maipuruak, emoten dautse euskaltzain barriai, kisa oneen ezaugarriak.

Eta euskaltzainkideen besarkatzaz, ta entzule-ikusle guztien eskumiñez, amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
I. M.<sup>a</sup> Etxaide

*Zadorlaria*  
Nazario Oleaga